

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARROIABEKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, eta borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea 2025-2026ko ordainagiriak

Behin eginik Arroiaben etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2025-2026ko errolda, jendaurrean jarriko da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesdunek Arroiabeko (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedienteak.

Ediktu honen bidez, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritik Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jendaurrean jartzen diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen deneetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu ondorengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2026ko abuztuaren 6an hasi eta irailaren 6an bukatuko da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2026ko irailaren 6an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideraturik ez daukatenei Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat emango da administrazio batzarrean.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Arroiabeko Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidean kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arriola, 2026ko ekainaren 30a

Lehendakaria

JULIA MARÍA LIBERAL LIBERAL